

Legala eta zilegi dena

Euskaldunon Egunkaria, 1991-06-25: 2.

Badakit ondo aski sentitzen dudana 25 lerrotan adieraztea ezina dela; halere, gaurko egoerari dagokionez zerbait esan nahi dut.

Agerian dagoena, zera da, PSE-PSOEko politikoak direla beste guztien gainetik aginkerian ari direnak. Madriletik (eta bitarteko zubi pertsonalak ezagunak dira!) gure herriagan PSOEak duen aginte hegemonikoa nahi dute indartu. Eta kopeta behar da, zeren eta Estatu mailan alderdi honek lortu zuen guztia burutik usteltzen ari baitzaio dagoeneko! Hemengo PSE, Espainia osoan bere usamak lumak galtzen nola ari den ikusita sentitu behar litzateke larru gorrian; baina Gerratarren zaga Gilesa eta Taim Sport-en zama Navarro eta Galeote-ren esturak Amedo eta bere inguru ilunbetsua... Eta halere, horiek dakite geuri zer komeni zaigun, batez ere geure arteko gerra!; ikus bere estrategia; geure arteko diferentziaz bizi bait dira!; ez bakarrik!, ez bait dira berez gauza, baizik eta hemengo laguntzarekin, historian zehar egin duten bezala; eta legalitatearen defentsan gainera! Modu honetan hauteskundeaz gero gertatzen ari den gaiztakeria guztia legala omen da; honela, lege formalpean, zuritzen dituzte ekintzak. Legea, lehengoa eta oraingoa, badakigu nondik datorren, 1839az gero bereziki; beraiek egindako eta geuk onartu ez dugun Konstituziotik. Zer du guretzat ongarri lege-iturri honek! Hemen euskararen legearekin izaten ari garen esperientzia lekuko: gure hizkuntza hemen *legala* denetik egoera *errealera* dagoen aldea paperetik hizkuntza bizira dagoen berbera da. Paperak defendatzen dituzte PSEko euskaldun leial horiek herri honentzat.

Hemen eta gaur, legalitate honen aurretikoa, Herri honek duen bere buruaren jabe izateko eskubidea da guretzat *zilegi dena*.